



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

GERNIKAKO ARBOLA MARATOI SOLIDARIOA ZIN-BIDETIK PASAKO DA ABENDUAREN 30EAN

- **Javi Condek, Jon Salvadorrek eta Begoña Beristainek ongintzazko lasterketa hau egingo dute, non emakume kirolarien zeregina ere aldarrikatu nahi den.**

(Bilbon, 2019ko abenduaren 19an).- Bizkaiko Batzar Nagusietako Ana Otadui Lehendakariak Gernikako Arbola Maratoi Solidarioa aurkeztu du gaur. Proba zin-bide historikotik zehar pasako da abenduaren 30ean, ongintzazko helburuekin. Gernikako Arbola Zaharraren maratoia Batzarretxeko barrutitik abiatuko eta Europa Parkerako sarreraren albotik igaroko da. Ibilbideak Erregeek, Foruak berresteko, erabiltzen zuten zin-egite ibilbidean parte hartzen du. Handik pasa zen azkena Fernando VII.a izan zen, korrika, Mañariatik, bere helmugara berandu zihoalako.

“Batzar Nagusien Lehendakari gisa, eta oro har, bizkaitar guztiontzat, ohore handia da, aurren, zuen erronka solidarioan Gernikako Arbola sartu izana, euskal askatasunen sinboloa eta gure historiaren ikonoa baita”, nabarmendu du Otadui, Foru Ganberako ordezkari gorenak.

Aurkezpenean, Javi Conde eta Jon Salvador atletak eta Begoña Beristain korrikalari eta kazetaria ere izan dira. Azken horrek, estreinaldiko aldiz, maratoi honetan parte hartuko du, lasterketa solidario honen alde egiteko eta emakumearen kirol esparruko zereginak nabarmentzeko.

Javi Conde Maratoi Solidarioen Elkartek, oraingo honetan ere, bere erronka solidarioenatariko bati aurre egingo dio: maratoi bat egitea (42.195 metro) zirkuitu labur eta Bizkaiko leku ospetsu batean. 170 metroko zirkuitu bat da, alegia; guztira 85 metroko 514 zuzen, dagozkien joan-etorriko birekin. Lasterketa 9:00etan hasiko da, astelehenean, abenduak 30.

Bere historian zehar, Javi Conde Maratoi Solidarioek ezaugarri hauetako hainbat maratoi egin ditu, Gaztelugatxeko San Joan, Bizkaia Zubiko igarobidea edo Karrantzako Pozalagua Leizeetatik.

Proba hauek homologatuta eta Bizkaiko Federazioko epaileek kontrolatuta daude, eta dirua biltzea eta ekintza solidarioetan erabiltzea dute helburu. Aurren, bildutako dirua honako elkarteei emango zaie: Aunar Taper Solidario Elkarte, Stop San Filipo Elkarte, Kirol Egokituaren Euskal Federazioa, Saharako Errefuxiatuen Kanpamendua, Basauriko Atletismo Egokituaren Kluba eta Aingeru-Etxebarri Proiektu Solidarioa, Jesusen Mirabeak, besteak beste.

Javi Conde atleta bilbotarrak bederatzi domina irabazi zituen Udako Joko Paralinpikoetan 1992 eta 2004. urteen artean. Une honetan Basauriko Javi Conde Atletismo Kluba zuzentzen du eta bertako adimen minusbaliotasuna duten kirolarientzako pista atletismo taldeak, aurten, Espainiako txapelketa irabazi du, Bizkaira 27 dominekin itzuli dela.

Erandioko Jon Salvador Javi Conde Atletismo Klubeko kidea da eta otsailean, bosgarren aldiz, Saharako Maratoiko podiumera igo zen, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduen zeharreko lasterketa egin ondoren. Bertan hirugarren geratu zen.

Biek antolatu diren bost maratoi solidario hauetan hartu dute parte. Aurtengoa abenduaren 30ean antolatuko da, non Begoña Beristainek estreinaldiko aldiz korrika egingo duen. Azken hura ere Saharako Maratoiaren podiumera igo zen, hirugarren geratu ondoren eta Tunezen antolatu diren Saharako 100 kilometroetako ultradistantzian izan duen bere lehenengo esperientziaz itzuli berria da.

Maratoi hau Bizkaiko Jera Junkera trikitilariari dedikatuta egongo da, Maratoi Solidarioen lagun ona eta aurreko erronkenetariko batzuk bere musikaz lagundu dituena. Junkera bere bizi maratoiari aurre egiten ari zaio eta esfortzu, irmotasun eta sakrifizio handiz, duela hainbat hilabete, ezenatokietatik, aldi baterako, urruntzera behartu zuen iktus larri batetik sendatzen ari da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL MARATÓN SOLIDARIO GERNIKAKO ARBOLA RECORRERÁ LA RUTA JURADERA EL PRÓXIMO 30 DE DICIEMBRE

- **Javi Conde, Jon Salvador y Begoña Beristain correrán esta prueba benéfica con la que se quiere reivindicar también el papel de las mujeres deportistas.**

(Bilbao, a 19 de diciembre de 2019).- Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha presentado hoy el Maratón solidario Gernikako Arbola que recorrerá la histórica ruta juradera el próximo 30 de diciembre con fines benéficos. El maratón partirá del Árbol Viejo de Gernika, saldrá del recinto de la Casa de Juntas y se disputará en el lateral por el que se accede al Parque Europa. El itinerario forma parte de la ruta juradera que utilizaban los Reyes para venir a Bizkaia a refrendar los Fueros. El último en recorrerla fue Fernando VII que lo hizo corriendo porque llegaba con retraso a su destino desde Mañaria.

“Es un gran honor para mí como Presidenta de las Juntas Generales y en general para los y las vizcaínas que hayáis incluido este año en vuestro reto solidario al Árbol de Gernika, símbolo de las libertades vascas e icono de nuestra historia”, ha destacado Otadui, máxima representante de la Cámara Foral.

En la presentación, han participado los atletas Javi Conde y Jon Salvador, que afrontan su sexto maratón solidario, así como la corredora y periodista Begoña Beristain, que por primera vez se suma a este maratón para apoyar esta carrera benéfica y visibilizar el papel de la mujer en el deporte.

La Asociación Maratones Solidarios Javi Conde se enfrentará una vez más a uno de sus retos solidarios: correr la distancia de un maratón (42.195 metros) en un circuito corto y en un lugar emblemático de Bizkaia. Es un circuito de 170 metros, lo que se traduce en un total de 514 rectas de 85 metros con sus correspondientes giros de ida y vuelta. La carrera comenzará las 9 horas del lunes día 30 de diciembre.

A lo largo de su historia, Maratones Solidarios Javi Conde ha realizado maratones de estas características en San Juan de Gastelugatxe, en la pasarela del Puente Bizkaia o Cuevas de Pozalagua de Karrantza.

Estas pruebas, que están homologadas y controladas por jueces de la Federación Vizcaína, tienen como objetivo recaudar fondos y destinarlos a acciones solidarias. Este año se entregará lo recaudado a la Asociación Aunar Taper Solidario, la Asociación Stop San Filipo, la Federación Vasca Deporte Adaptado, el Campamento Refugiados Sáhara, Club Atletismo Adaptado de Basauri y Proyecto Solidario Aingeru-Etxebarri, Siervas de Jesús, entre otros.

El atleta bilbaíno Javi Conde ganó nueve medallas en los Juegos Paralímpicos de Verano entre 1992 y 2004 y ahora dirige el Club Atletismo Javi Conde Basauri, cuyo equipo de atletismo en pista para atletas con discapacidad intelectual ha ganado este año el campeonato de España, volviendo a Bizkaia con 27 medallas.

El erandiotarra Jon Salvador, que pertenece al Club de Atletismo Javi Conde, subió el pasado mes de febrero por quinta vez al podio del Maratón del Sáhara, tras una carrera en los campamentos de refugiados de Tinduf (Argelia) que consiguió terminar en tercer puesto. Ambos han disputado en las cinco ocasiones anteriores este maratón solidario en el que el próximo 30 de diciembre debutará Begoña Beristain, quien también ha subido al podio del Sáhara Maratón en tercera posición y acaba de regresar de su primera experiencia en la ultradistancia en los 100 kilómetros del Sáhara celebrados en Túnez.

Este maratón va a estar dedicado al trikitrilari vizcaíno Kepa Junkera, amigo de Maratones Solidarios y que ha animado con su música algunos de los retos anteriores. Junkera está atravesando su propio maratón vital y con mucho esfuerzo, constancia y sacrificio está recuperándose de un ictus agresivo que le obligó hace ya unos meses a apartarse momentáneamente de los escenarios.